

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

2023-2027 agintaldia

2. batzarraren AKTA

2024ko azaroaren 26an – 17:00etan

BERTARATUAK

Juan Mari Aburto Rique (Bilboko alkatea, batzordeburua)

Eider Inunciaga Serna (Euskarako, Herritaren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako zinegotzi ordezkaria, batzordeburu-ordea)

Mari Jose Arrieta Sagarna (Bilboko Udaleko Euskarako zuzendaria, batzordeko idazkaria)

Miren Itxaso Erroteta Sagastagoya (EAJ-PNV Udal Talde Politikoa)

Eider Bilbao Aldaiturriaga (PSE-EE (PSOE) Udal Talde Politikoa)

Nerea Undabarrena de la Coteria (EH-Bildu Udal Talde Politikoa)

Xabier Jiménez López (Elkarrekin Podemos Udal Talde Politikoa)

Pello Bidarte Perez, Hezkuntza sailburuordetza (Eusko Jaurlaritza)

Aitor Aldasoro Iturbe, Hizkuntza Politikarako sailburuordea (Eusko Jaurlaritza)

Sonia Rodriguez Rodriguez, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria (Eusko Jaurlaritza).

Isaac Amezaga Larrazabal, Euskara zuzendari nagusia (Bizkaiko Foru Aldundia)

Igor Arenaza Txintxurreta (Athletic Club)

Jon Maguregi Olabarria (Bilboko euskaltegietako ordezkaria)

Biosne Zarandona Torvisco (Labayru Fundazioa)

Lutxo Egia del Río (Idazlea eta kultura-sustatzailea)

Xabier Aierdi Urraza (Soziologoa. Begirune Fundazioa)

Antonio Merlan eta Ekain Larrinaga (Immigrazio Gaietarako Udal Kontseilua)

Koldobika Usubiaga Zorrila (Peñascal kooperatiba)

ETORRI EZINA ADIERAZI DUTE

Marta Ajuria Arribas (Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria)

Gonzalo Olabarria Villota (Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkaria)

Kontxi Claver Zurro (Ekonomiaren Garapeneko, Merkataritzako, Turismo eta Enplegu Saileko zinegotzi ordezkaria)

Esteban Goti Bueno (PP Udal Talde Politikoa)

Begoña de Ibarra Zuazo (Kultura zuzendari nagusia; Bizkaiko Foru Aldundia)

Olatz Elgea Lopez Cano (Bilbao Dendak elkarteko ordezkaria)

Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria (Euskaltzaindia)

Nerea Ortiz Olarra (Athletic Club)

Bakarne Arostegi Legarretaetxebarria (Uztarri Fundazioa)

Fernando Lopez de Eguilaz (Kutxabank)

Beñat Erezuma (Digitalizazio aholkularia)

Javier Etxebeste (Enpresaria)

IDAZKARITZA TEKNIKOA

Koldo Zarate eta Jon Oarbeazkoa (Labayru Fundazioa)

Juan Mari Aburtok, batzordeburuak, 2023-2027 agintaldiko bigarren batzarrera ongietorria eman die bertaratutakoei. Bilerarekin hasi aurretik, kide berriak, Kontxi Claver Zurro eta Aitor Aldasoro Iturbe, aurkeztu nahi izan ditu, eta halaber, etorri ezin izan den Milagros Acearen ordez bertaratu den Antonio Merlani ere ongietorria eman dio.

Batzordekideek bilerarako gonbidapena korreo elektronikoz jaso zuten eta horrekin batera bileraren egitaraua eta 2024ko apirilaren 30ean egin zen bileraren akta ere bai. Batzordekideak agurtu ondoren, Juan Mari Aburto bileraren egitarauarekin hasi da.

1. AURREKO BILERAREN AKTA ONARTU (2024-4-30)

Aurreko bileraren akta aho batez onartu da.

2. UDALAREN GAIK AURKEZTU

Udalaren honako hiru gai hauen aurkezpena egin da:

2.1. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2023-2027)

2.2. Euskararen egoeraren diagnostikoa Bilbon

2.3. Euskararen Nazioarteko Eguna 2024

2.1. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2023-2027 plangintzaldia).

Juan Mari Aburtok adierazi du aurtengo irailean onartu duela Bilboko Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Gobernu Planaren 9. ardatzean, Bilbo euskalduna ardatzean, jasota dagoen konpromisoetako bat da eta bete egin da.

Ondoren, Eider Inunciaga Euskarako, Herritaren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako zinegotzi ordezkaria eta batzordeburu-ordeak hartu du hitza eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari buruzko xehetasunak aipatu ditu.

Plan berria ontzeko prozesuaren baitan, VI. Plangintzaldiaren ebaluazioa (2018-2022) burutu da eta diagnostiko horren emaitza izan da, hain zuzen ere, 2023-2027 plangintzaldia diseinatzeko oinarria. Diagnostiko hori, gainera, Udal barruko arduradun eta langileen parte-hartzearen bidez gauzatu da. Estrategikoa da eta bertan helburuak eta normalizazio neurriak jasotzen dira:

Helburu orokorrak:

- Udalak jarrera proaktiboa agertzea eta euskararen motore izatea.
- Hizkuntzen kudeaketa Udal osoaren egitekoa dela barneratzea.
- Herritarrek Udalarekin euskaraz eroso egin ahal izatea.
- Udalean euskaraz lan egitea zerbitzu hobea emateko.

Udal sailak eta udal erakundeak:

Lehenbiziko aldiz, udal sailez gain, udal erakundeak ere sartuko dira Erabilera Planaren eragin eremuan. Udal erakundeak pixkanaka egokituko dira planean jasotako lan-ildo eta neurrietara, nahiz eta haietako batzuek honezkero euren bidea hasita duten. Hori

dela eta, lanketa berezia egingo da horiekin guztiekin, bakoitzaren errealitatera eta erritmorra egokitzeko.

Kudeaketa sistema, lidergoa eta antolaketa-eredua:

Planaren zeharkakotasuna eta lidergoa sendotzeko asmoz, Zuzendaritza Batzordeak osatu dira.

Momentu honetan Mari Jose Arrieta Bilboko Udaleko Euskararako zuzendariak hartu du hitza eta Eider Inunciagaren azalpena osatu du. Arestian aipatutako 4 helburuak 2 ardatz, 13 lan ildo eta 45 neurritan antolatuta landuko dira. Honako eskema hau aurkeztu du:

1. Ardatza: KUDEAKETA

1. Euskararen kudeaketa orokorra
2. Lidergoa
3. Langileak
4. Hizkuntza gaitasuna
5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa
6. Hizkuntza klausulak

2. Ardatza: ERABILERA

Zerbitzu hizkuntzaren eremuan

1. Irudia
2. Herritarrekiko harremanak

Lan hizkuntzaren eremuan

3. Barne harremanak
4. Kanpo harremanak
5. Prestakuntza
6. Baliabide informatikoak
7. Sortze hizkuntza

Hau guztia kudeatzeko 5 Zuzendaritza Batzorde sortuko dira, zuzendaritza eta erakunde bakoitzak Udalari eta udalerritari begira duen eragite maila edo esparruaren arabera sailkatuak. Honako hauek dira:

- Jarduera eta programen eskaintzarako Zuzendaritza Batzordea.
- Herritarrekiko harremanetarako Zuzendaritza Batzordea.
- Udalaren funtzionamendurako Zuzendaritza Batzordea.
- Arlo sozioekonomikorako Zuzendaritza Batzordea.
- Hiri garapenerako Zuzendaritza Batzordea.

Azalpenaren ondoren, Juan Mari Aburto batzordeburuak hartu du hitza ekarpenik edo zalantzarik dagoen galdetzeko. Horrelakorik ezean, hurrengo gaiari heldu dio.

2.2. Euskararen egoeraren diagnostikoa Bilbon.

Mari Jose Arrieta Bilboko Udaleko Euskararako zuzendariak hartu du berriz hitza eta hurrengo Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko 2023ko azarotik hasita 2024ko abuztura arte egindako Euskararen egoeraren diagnostikoaren faseak azaldu ditu:

1. fasea: Marko teorikoa osatu

2023ko azarotik 2024ko urtarrilaren bitartean.

2. fasea: Diagnostikoa egin

Bilboko ESEPen azterketa: 2023ko azarotik 2024ko urtarrilaren bitartean.

Parte hartze prozesua:

- Elkarrizketak.
- ESEPen helburu estrategikoen araberako kontraste saioak: 2024ko otsailetik martxora bitartean.
- Barrutiko kideekin kontraste saioa: 2024ko apirilean.
- Herritarrentzako galdetegia: 2024ko ekainean.
- Saio irekia herritarrekin: 2024ko ekainean.

3. fasea: Ildo estrategikoak definitu

2024ko ekainetik abuztura bitartean.

4. fasea: Txostena osatu

2024ko abuztuan.

Lehenengo fasean Bilboko egungo euskararen egoera ezagutzeko helburuarekin datu estatistiko ofizialak, ikerketa demolinguistiko eta soziolinguistikoak, gaiarekin lotutako azterlanak eta abar aztertu ziren.

Bigarren fasea prozesu parte hartzailea izan da eta orain arte indarrean egon den Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) ibilbidea eta bilakaera aztertu ondoren, hainbat ekintza egin ziren:

Elkarrizketak: euskararekin zerikusia duten entitate eta erakunde garrantzitsuenetako ordezkariari eta Bilbon ordezkartza duten alderdi politikoei.

Kontraste-saioak: arloen araberako hainbat eragile-motarekin egin dira bilerak: euskalgintza, euskararen jabekuntza, arlo sozioekonomikoa, administrazio publikoa, aisia-kirola, ...

Hiritarrei inkesta: sarean eskuragarri egon den borondatezko galdetegi autoadministratuarekin.

Hiritarrek saio irekia: Bilboko herritarrei oro har luzatutako deialdiarekin.

Hirugarren fasean diagnostikoaren emaitzak aztertu eta hurrengo urteetarako ildo estrategikoak zehaztu ziren.

Laugarren fasean informazioa guztiarekin eta enpresa baten laguntzarekin txosten bat egin zen, 2025ean AROA Plan Estrategikoaren metodologiaren barruan Bilboko Udaleko Plan Estrategiko berria osatzeko.

Juan Mari Aburto batzordeburuak hartu du hitza ekarpenik edo zalantzarik dagoen galdetzeko. Xabier Jiménez López Elkarrekin Podemos Udal Talde Politikoko ordezkariak hartu du hitza, eta bigarren fasean egindako elkarrizketa, inkesta eta abarren kopuruaz galdetu du. Mari Jose Arrietak erantzun dio, zenbait datu emanez:

Elkarrizketak: hainbat erakundetako eta alderdi politikoetako 11 parte-hartzaile.

Kontraste-saioak: sortu ziren zazpi lan-mahaietan hainbat pertsonak hartu zuten parte.

Adibidez:

-Administraziokoan: 15 parte-hartzaile.

-Barrutietakoan: 5 parte-hartzaile.

-Euskalgintzakoan: 10 parte-hartzaile.

-...

Horiez gain,

-Hiritarrei inkesta: 123 pertsonak erantzun zuten.

-Hiritarren saio irekian: 12 parte-hartzaile.

Ondoren, Eider Inunciagak hartu du hitza eta aipatu du hiritarrentzako saioak zenbait hedabidetan iragarri baziren ere, parte hartzea baxua izan zela, baina, hala ere, kualitatiboki emaitza positiboak jaso zirela. Honetaz gain, zenbait hiritarrek oraindik ere horrelako saioak euskaraz izateari beldur edo errespetu modukoa diela azpimarratu du.

Xabier Jiménez Lópezek berriz hartu du hitza eta nabarmendu du Administrazioaren eta hiritarren parte-hartze datuen arteko aldea hain handia izanda, etorkizunera begira aldaketak egin beharko litzatekeela osotasunaren isla ahalik eta errealean izan dadin. Juan Mari Aburtok eta Eider Inunciagak biek azpimarratu dute agintaldi honetan horren

alde egiten saiatu dela parte hartzeko hainbat aukera eskainiz, eta baita parte-hartzea zenbait esparru zein arlotara zabalduz.

Honen ostean, Juan Mari Aburtok hartu du berriz hitza hurrengo gaiari hasiera emateko.

2.3. Euskararen Nazioarteko Eguna 2024.

Juan Mari Aburtok berak azaldu du bi ekimen egingo direla, jada abian dagoen **“Bilbo Euskararen Hiriburua” erakusketa ibiltaria** eta, urtero bezala, Arabiar Aretoan antolatzen den **Udalaren ospakizuna**, alegia.

2.3.1. “ Bilbo Euskararen Hiriburua” erakusketa ibiltaria

Urriaren 15ean Begoñako Udaltegian hasi zen eta otsailaren 14an amaituko da Basurtuko Udaltegian. Bilboko Barruti guztietan egongo da ikusgai.

2.3.2. Udalaren ospakizuna

Bilboko dantza taldeak omenduko dira, euskal kulturaren egindako ekarpena goraiatzeko.

Momentu honetan Mari Jose Arrietak hartu du hitza alkate jaunaren azalpena osatzeko. Hamar dantza talde izango dira omenduak, denak Bilbokoak, 1951. urtetik hona hiriko auzo eta barrutietan sortzen joan direnak eta oraindik ere bizirik dirautenak:

1. Gaztedi Dantzari Taldea
2. Bihotz Alai Dantza Taldea
3. Beti Jai Alai Dantzari Taldea
4. Irutasun Dantzari Taldea
5. Batasuna Arraizbide Dantza Taldea
6. Salbatzaile Dantza Taldea
7. Goi-Herri Dantza Taldea
8. Mikeldi Dantza Taldea
9. Ibai-Arte Dantza Taldea
10. Arraizpeko Dantza Taldea

Juan Mari Aburtok hartu du hitza bileraren bigarren zatiri sarbidea emateko. Aholku Batzordea parte-hartzaileagoa izatea nahi denez gero, bilera honetarako bi ekintza

ezberdin prestatu dira. Alde batetik, Xabier Aierdi Urrazak kulturartekotasunaren inguruan prestatutako **gogoeta-hitzaldia**, eta bestetik, honekin elkarlotuta dagoen **taldeko dinamika**.

3. KULTURARTEKOTASUNA GAIAREN LANKETA:

3.1. Xabier Aierdi batzordekidearen gogoeta-hitzaldia.

Xabier Aierdi Urraza batzordekideak hartu du hitza eta lehenik eta behin, kulturartekotasuna oso gai zaila dela azpimarratu nahi izan du. Izan ere, kulturartekotasuna aniztasun kulturala kudeatzeko modu interaktiboa da, eta gaur egungo Europan “natibismo” izeneko pentsamendu politikoa gailentzen ari da, hots, estatu bat dagoenez, kultura bakarra, nazio bakarra, erlijio bakarra, eta ondorioz, hizkuntza bakarra besterik ezin da onartu, eta honek arestian aipatutako kulturen arteko **interakzio positiboa** galarazten du.

Halaber, kulturartekotasunaren printzipio nagusia kulturen arteko **berdintasuna** aldarrikatzea da, eta hau lortzeko kolektibo ezberdinek duten garrantzi soziala berdindu egin behar da, hau da, **ezberdintasunaren eskubidea** bermatu egin behar da, bestela, asimilazionismo hutsean geratzeko arriskua daukagu, kulturanzitasunetik kulturartekotasunerako bidea gertatzea eragozten duena.

Zenbait ikerketen arabera, datozen 25 urteetan gure erkidegora 500.000 pertsona inmigrante etorriko dira, Bilbora zehazki horren %20a, hau da, 2050. urtean Bilbok 100.000 pertsona inmigrante gehiago izango ditu. Gainera, gurean estatu bat, nazio minorizatu bat eta inmigrante kolektiboak ditugu. Eta horretaz gain, ez dakigu euskararen egoera zein izango den 25 urte barru. Beraz, “*Nola lortu euskara gainerako kulturen eta hizkuntzen arteko zubi izatea Bilbon?*” Ikusi denez, aztertzeko hainbat puntu daude, egoera posible asko baitaude. Baina, hala ere, galdera honi erantzuna bilatzeko orduan, beti **Berdintasuna**, **Ezberdintasunaren eskubidea** eta **Interakzio positiboa** bermatu behar ditugu.

Xabier Aierdik hitzaldia bukatutakoan, Juan Mari Aburtok hartu du hitza eskerrak emateko eta baita gogoetaren sakontasuna nabarmentzeko ere. Jarraian, hurrengo plangintzaren garapenera begira eta Xabierrek airean utzitako galderei erantzuna eman ahal izateko, alkate jaunak taldeko dinamikari hasiera eman dio eta batzordekideak lanean utzi ditu.

Taldeko dinamika **World Café** izeneko metodologiaren bitartez gauzatu da eta honi ekin aurretik, Idazkaritza teknikoak azalpen laburra egin du, batzordekide guztiek honen nondik norakoak ezagutu ditzaten.

3.2. Taldeko dinamika.

Taldeko dinamika Xabier Aierdik emandako hitzalditik eta batzordekideek aurretik jasotako galdera nagusitik –*Nola lortu euskara gainerako kulturen eta hizkuntzen arteko zubi izatea Bilbon?*– abiatu da. Hiru txanda izan ditu eta txanda bakoitzean taldeka galdera nagusitik xehatutako galdera bati erantzun zaio:

1. txanda

Zer egin lezake Bilboko Udalak migratzaileak euskarara ERAKARTZEKO? edo, zer egin lezake Bilboko Udalak migratzaileak euskarara ERAKARRIAK SENTITZEKO?

2. txanda

Zer egin lezake Bilboko Udalak migratzaileek euskara IKAS dezaten lortzeko?

3. txanda

Zer egin lezake Bilboko Udalak migratzaileek euskara ERABIL dezaten lortzeko?

Talde bakoitzak 10 minutuko tartean sortutako ideia guztietatik 2 nagusi hautatu behar izan ditu gelako erdigunean paratutako muraletan kokatzeko eta gainontzeko batzordekideei azaltzeko.



Hauek izan dira txanda bakoitzean jaso diren proposamen batzuk:

1. txandan: euskarara ERAKARRI

- Bilbon arnaguneak sortzea eta indartzea.
- Udalak eskolaz kanpokoak bermatzea.
- Erakunde ezberdinen arteko jokabide bateratuak eta interakzioak.

2. txandan: euskara IKASI

- Informazioa hurbiltasunez, maitasunez eta harrera hona eginez ematea.
- Ikastaroen doakotasuna bermatzeko aurrekontuak izatea.
- Harrera prozesuan euskara txertatzea.

3. txandan: euskara ERABILI

- Interakzioak sortzeko espazioak egotea.
- Erreferente adierazgarriak bilatzea eta indartzea.
- Etorkinen kulturekin harremanak sortzeko gune euskaldunak eskaintzea.

Behin hiru txandetako galderei erantzuna eman ondoren, ideia guztiak jasoko direla (post-it-etakoak zein fitxetakoak) eta gauzatze helburua izango duen txostena egingo dela jakinarazi zaie batzordekideei.

Ondoren, eta taldeko dinamikari amaiera emateko, Adimen Artifizialak gai honen inguruan egindako olerkia ipini da entzungai:

Bilbon bizi da euskara, kultura batetik bestera dabil, zubi izatea, bidea zabaltzea, bizikidetzan harremanak bilduz. Hizkuntza guztiak elkarrekin euskara bihurtu behar dugu zubi, atea, kultura. Kultura aniztasunean, gizatasunaren eztabaida, iraganeko eta etorkizuneko, ahotsak batzea, etorkizun hobe baten bidean.

Bilbo mundu zabaleko gune, euskara ez da bakarrik gurea, beste hizkuntzak lagun, elkarlanean urratsak emanez, guztien artean bizirik iraun dezan, hizkuntzen arteko zubi hori, egonkortzen joan dadin.

4. GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.

Iradokizunen txandan, Mari Jose Arrietak eta Eider Inunciagak hartu dute hitza eta batzordekideen parte-hartzea eskertzeko, hauei *Munduenea, munduko ipuinen etxea* deitutako ipuin-sorta eta *Mundu Bete Jai* liburua banatu dizkiete. Argitalpen hauek

kulturartekotasunaren gaia lantzen dute eta Labayru fundazioak Bilboko Udalaren laguntzarekin egindakoak dira.

Jarraian, Lutxo Egiak hartu du hitza eta GUKA Euskara Elkartean abian jarri berri diren gogoeta dinamikak azaldu ditu. Bilbo beste kultura eta hizkuntza batzuen harrera hiria denez gero, hauen eta euskararen arteko bizikidetasuna lantzeko dinamikak dira, astero birritan egiten direnak (oraingoz 6 bilera) eta 75 parte-hartzaile euskaldun bildu dituztenak. Aste Santurako bitarteko epean 300 parte-hartzaile euskaldun zein erdaldunen esku-hartzea espero da, ideia nagusi baten inguruan hausnartuz, aipatutako bizikidetasun honi erantzun bat emango dion egitasmo bat sortzeko helburuarekin.

Bukatzeko, galderarik egon ez denez, Mari Jose Arrietak parte hartu izana eskertu die batzordekideei eta saioari amaiera eman dio.

Bilbon, 2024ko azaroaren 26an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA

Mari Jose Arrieta